



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EITBREN KONTROL BATZORDEAK 2018KO MAIATZAREN 21EAN EGINDAKO BILKURAREN HITZETZ HITZETZKO TRANSKRIPZIOA

*Eguerdiko ordu bata eta hogeita
hamazazpian hasi da bilkura.*

BATZORDEBURUAK (Arrizabalaga Arruza): Eguerdi on, denoi. Barkatu. Barkatu, bai. Hasiko gara batzordearekin? Arana Anderea. Barkatu.

Mesedez, isiltasuna. Batzordearekin hasiko gara? Ez dira isiltzen. Bai. Beno, ba. Hastera goaz.

EITBren Kontrol Batzordeari hasiera emango diogu. Gai zerrendako lehenengoko puntua, 2018ko martxoaren 5ean egindako bilkuraren akta irakurri...

- (1. zintaren amaiera)
- (2. zintaren hasiera)

... Beno, ba. Hastera goaz.

EITBren Kontrol Batzordeari hasiera emango diogu. Gai zerrendako lehenengoko puntua, 2018ko martxoaren 5ean egindako bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onestea. Ba al dago zer edo zer esateko honen inguruan? Beraz, onartu egiten da.

Bigarren eta hirugarren puntuak beste baterako utzi dira. Eta jarraian, laugarren puntuari ekingo diogu. ETBko zuzendariaren agerraldia, EH Bildu Taldeko Unai Urruzuno Urresti legebiltzarkideak egindako eskariari jarraituz, batzordeak eskatuta, ETBko informatiboen instrumentalizazioari buruz hitz egiteko.

Beraz, gure gonbidatuei harrera egingo diegu eta agerraldiarekin hasiko gara. Eskerrik asko.





(*Geldiunea*)

Bai. Beno, puntuen aurkezpena egin dugu jada. Eta EH Bilduren ordezkaria den Urruzuno jaunak dauka hitza lehenengo eta behin aurkezpena egiteko.

URRUZUNO URRESTI jaunak: Bai. Eguerdi on, guztioi. Eguerdi on, Iturbe anderea eta Aranburu jauna.

Beno, lehenik eta behin, sorpresa edo. Nik Edu Barinaga, ETB zuzendariaren agerraldia eskatu nuen eta ez dakit zer dela eta aldatzen den agerraldira etorri behar denaren pertsona bera. Zergatik aldatzen den eta ez zaigu inolako azalpenik eman. Eta beno, gustatuko litzaiguke lehenik eta behin, posible den heinean, horren zergatia esatea.

OREGI BASTARRIKA andreak: Barkatu, presidentea eta Urruzuno jauna. Nik neu Jasone Agirrekin hitz egin nuen honetaz luze ostegunean. Orduan, sin más, argitzeko.

(*Berbotsa*)

BATZORDEBURUAK: Orain aurkezpenen momentua da. Horrelako gauzak argitu behar izanez gero, bukaeran egingo dugu, bai? Mesedez, jarraitu, Urruzuno jauna, aurkezpena.

URRUZUNO URRESTI jaunak: Ez Jasone Agirreri ez niri ez EH Bilduko inori ez zaio horren zergatirik inoizko momentuan eman, baizik eta jakinarazi Edu barik Iturbe anderea etorriko zela. Guk zergatiez galdetzen dugu. Baina, beno. Besterik gabe. Ez dugu honetaz ere gaurko eztabaidaren muina edo korapiloa egingo. Baina berriro diot, inoizko momentuan ez zaigu eman horren zergatirik.

Guk Edu Barinaga jaunaren agerraldia eskatu genuen bera delako ETBko Zuzendaria eta gure aburuz uste genuelako gaur hona ekarri nahi dugun gaiarekiko edo gertaerarekiko berak lotura zuzenagoa izanik eta





hartara ardura ere zuzenagoa izanik, uste genuelako beste era batetako azalpenak eman zitzaizkiela. Dena den, jarraituko dugu eta ikusiko dugu gure kezka transmititzean zenbaterainoko erantzuna jasotzen dugun beste alde batetik.

Esan bezala, gure gaurko agerraldia gertaera konkretu batetik eratorria dator. Gertaera hori otsailaren 23an eman zen. Eta bere garaian, ekimen hau edo agerraldi eskaera hau erregistratzerakoan gertaera konkretu horretaz edo horretan oinarritzen baldin bagina ere, uste dugu ez dela kasu isolatu bat, ez, muinean badagoela beste arazo bat. Muinean badagoela benetan EITBren ezaugarritzea, zer asko esaten duena.

Otsailaren 23an Euskadi Irratian goizean egon zen programa bat, ez dakit momentu honetan Maite Artolak zuzendutako programa bat, Txilarretik, Txilarreko baseritik egindakoa. Bertan, gonbidatuak Arnaldo Otegi eta Jesús Eguiguren izan ziren. Eta Txilarre Baseritik egin zen, bere garaian Txilarre Baserria izan zelako Jesús Eguiguren eta Arnaldo Otegiren arteko hainbat elkarrizketen lekua.

Gure ustez, programa hori egite hutsarekin bazegoen nolabaiteko aitortza bat. Bi pertsona horiek herri honen bakegintzan egindako lanari. Aitortza bat non orain dela gutxi ETaren azken erabakiaren harira, José Luis Rodríguez Zapatero, berak ere onartu duena. Esanez pertsona bi horiei esker, besteak beste, heldu garela gaur egun gauden egoerara.

Esan bezala, guk interpretazio hori egiten genuen, bazegoela nolabaiteko aitortza bat. Aldiz, momentu hori pasatu eta gero, gauean Teleberrian, eta hori da gaurko...

(2. zintaren amaiera)

(3. zintaren hasiera)

... nolabaiteko aitortza bat.

Aldiz, momentu hori pasatu eta gero, gauean Teleberrian, eta hori da gaurko agerraldiaren arrazoia, edo oinarria, Teleberrian programa horren berri ematen da, eta gero kazetariak berak, bere kabuz, bere irudikoz, egin zuen balorazio bat, guztiz salagarria iruditzen zaiguna. Guztiz salagarria, lehenik eta behin, herri honetan urteetan gertatu denarekiko erabat partziala delako, erabat partziala izan zelako, erabat lekuz kanpokoa izan zelako,





bazegoelako tendentzia bat herri honetan urteetan gertatutakoa soilik alde baten bizkar-gainean ezartzeko. Kasu horretan, gainera pertsonalizatu egiten da Arnaldo Otegiaren pertsonaren gain. Eta, gainera, da komentario bat inolako balio informatiborik, gure aburuz behintzat, periodistikorik ez duena. Ez duena.

Tendentzia osoa, esan bezala, eta instrumentalizazio saiakera garbia, adibide garbia. Kazetariak esaten du Arnaldo Otegi egindako balorazio edo irakurketa politikoaren gainean, esaten du, edo nolabait aditzera ematen du, pertsona horrek erantzukizun zuzena izan duela herri honetan egondako hainbat eta hainbat hilketaren gainean. Guk, galdera egiten diogu EITBko zuzendari andereari, eta gustatuko litzaiguke benetan hau erantzutea. Ez? Ea nola baloratzen duen EITBko zuzendariak kazetari hark, bere garaian, esandakoa. Nola baloratzen da hori? Zer da hori? Nola izendatuko luke EITBko zuzendari andereak gertatutako hori? Hori adierazpen askatasuna da? Munduko Konstituzio zein eskubide adierazpen edo karta gehienek, adierazpen askatasuna aldarrikatzen dute. Adierazpen askatasuna aldarrikatzen dute, baina batik bat komunikabideena. Eta inportantea da. Gutxiago dira aldiz, ikus-entzulearena aipatzen dutenak, eta horiek ikus-entzuleak alegia, egoki informatua egoteko daukaten eskubidearena.

Uste dugu halako erasoekin, ze egun horretan gertatutakoa guretzat eraso bat izan zen, ikus-entzulegoa da, kaltetua dena. Maila eskaseko kazetaritzak entzulegoaren deskonfidantza eragiteaz gain, ideien monopolioa bultzatzen du eta uste dugu ez dagoela ezer kaltegarriagorik ideien monopolioa baino hedabideek daukaten demokratizaziorako funtzio horrekiko.

Gaurkoan, guk prest gaude hitz egiteko EITBren funtzio sozialaz. Prest gaude hitz egiteko herri honetan zabaldu den eszenatoki berri honetan, bakegintzaz ari garenean edo eta elkarbizitzaz ari garenean, EITBk herri honen bakegintzarako eta elkarbizitzarako izan behar duen paperaz. Prest gaude guzti horretaz hitz egiteko. Baina lehenik eta behin, eta lehen txanda honen denbora bukatzen ari denez, gustatuko litzaiguke hitz egitea askoz sinpleagoa den eta askoz oinarritzagoa den kontu batez. Ez soilik hedabideei dagokien gauza bat, baina bai hedabideei ere dagokiena.

Hitz egin nahi dugu errespetuaz, eta hitz egin nahi dugu begiruneaz. Gu Euskal Herria Bildu gara, bigarren indarra herri honetan. Baina berdin dio zazpigarrena izango bagina ere. Berdin dio zazpigarrena izango bagina ere.





Gure galdera zuzena da. Zergatik hartzen du EITBk, ze ez daukazu isolatua, zergatik hartzen du EITBk EH Bildu ,edo espektro politiko jakin batekiko besteekiko, beste batzuekiko hartzen ez duen jarrera? Zergatik mesprezaten du horrela, modu horretan, EITBk EH Bildu? Zergatik EH Bildurekin bai, beste batzuekin inoiz egin ez dena, egiten ez dena, eta, gure aburuz, egin beharko ez litzatekeena ere? Argi geratu dadila, egin beharko ez litzatekeena ere. Inorekin ez. Errespetua eta begirunea eskatzen ari gara. Beraz, benetan gustatuko litzaziguke erantzutea, zergatik jarrera hori EH Bildurekin. Eskerrik asko.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko, Urruzuno jauna. Eta guztioni erantzuna emateko hemen ditugu gure artean Maite Iturbe Mendialdua, EITBko zuzendari nagusia, eta Andoni Aranburu Iturbe, Estrategia eta Komunikazio zuzendaria. Ongi etorriak gure batzordera eta, beste barik, zuzena da hitza.

EITBKO ZUZENDARI NAGUSIA (Iturbe Mendialdua): Egun on guztioi.

Bueno, hasteko esan beharra daukagu hemen, guk ez geneukan eskaera honetan Bilduren... Bilduk egindako eskaera honetan, oso eskaera orokorra esan, nolabait zuk aipatu duzu gertaera konkretu batean oinarria zeukala. Baina eskaera horretan gertaera konkretu hori ez zen azaltzen. Alegia, ba bueno, nolabait eskaera zen... pues a la mayor esaten dena, ez? Objetibidade falta, pluraltasun falta, orduan, gai potoloa zen, orokorra zen eta balorazioa halakoxea egin dugun, eta horrexegatik etorri naiz.

Bestalde, eta nola baloratzen badut, nola baloratzen dugun gai hau, gertaera konkretu hau. Gertaera konkretu hau baloratu genuen bere garaian, eta Administrazio Kontseiluan ere esanda daukat. Momentu hartan baloratu genuen, eta esan genuen hanka sartze bat izan zela, periodistikoki, ...

(3. zintaren amaiera)

(4. zintaren hasiera)

... baloratu genuen bere garaian eta Administrazio Kontseiluan ere esanda daukat. Momentu hartan baloratu genuen eta esan genuen hanka-sartze bat izan zela periodistikoki. Eta nire hitzetan horrela dago jasoa





nolabait balorazio bat izan zelako, kazetariarena momentu hartan, eta notiziarekin ez zeukalako zerikusirik.

Baina hori esan eta gero, esango nuke gure profesionaltasunen konfiantza osoa daukagula. Eta ausartuko nintzateke ere esatera segur aski profesional horrek, ezagututa bera, ba egingo zuela balorazio hori nolabait balioan nahiko lukeelako jarri zilarren zeuden esfortzuak eta ahaleginak. Baina beno, hori jada izaten da, nire interpretazioa izan daiteke, nolabait beren profesionaltasuna. Nolabait pikutara ez eramateko, porque ez litzateke justua izango, bai?

Hori esanda ere, azkeneko galderari ez naiz gai sentitzen erantzutera, zeren azkenean iruditzen zait oso balorazio subjektiboa, nolabait esateko, zergatik EITBk ez duen tratatzen beste partiduak edo beste taldeak EH Bildu bezala da galdera, ezta? Eta zergatik ez dugu mespretxatzen beste talde... Beno, mespretxua edo horrelako hitz potolo bat erabili duzu EH Bildurekiko daukagun jarrera. Ezin dut hori konpartitu. Hori ezin dut konpartitu eta ez dut konpartitzen, e? Orduan, gure jarrera neutroa da eta neutroa izan beharko litzateke, dakizuen bezala, denontzat.

Orduan, beno. Orain erantzutera joango naiz guk geneukan eskaera orokorrari. Gaurko agerraldi hau Daniel Innerarity berriki idatzitako artikulu bat aipatuz hasiko dut, gizarte demokratikoen konplexutasuna ezin hobe azaltzen baitu. Zera dio:

"Una democracia es un sistema de organización de la sociedad que no está especialmente interesado en que resplandezca la verdad, sino en beneficiarse de la libertad de opinar. La democracia es un conflicto de interpretaciones y no una lucha para que se imponga una "descripción correcta" de la realidad."

Edozein hedabideren narratiboak interpretazio gatazka sor dezake. Eta sortzen du. EITBekin bezala, hedabide guztiekin gertatzen da. Innerarityk zalantza sakona ezartzen du errealitatearekiko erlazioak ulertzeko orduan, zer leku duen bizitza politikoan egiak eta gezurrak, zer erlazio sortzen den egia eta gezurra artean. Egiarekin dugun harremana konplexua da. Oso konplexua. Errealitatea ez da gertakari ukaezinekin osatzen, errealitatea konplexua da. Errealitate politikoa oso konplexua da.





Innerarityren hitzetan ez gara ebidentziazko mundu batean bizi, ezagutza faltaren behin-behineko ezagutzaren erabaki arriskugarrien eta apustuen ingurune batean baizik. Egia eta objetibotasuna zein zehaztasuna ez dira gauza bera. Esaten edo sentitzen dugun ia ezer ez da egiaztagarria.

Gainera, bizitzan gertatzen den moduan politikan ere badago dimentsio emozional bat. Eta gure emozioak oso zeharkako harremana dute objetibotasunarekin. EITBk obediencia politikoarekin lotuta ez dagoenez, Legebiltzarreko eztabaidetan agerian geratzen dira mahai honetan aurkatzen diren ikuspegi politikoak oso sentsibilitate desberdinekoak, hain zuzen. Ezin dugu horietako sentsibilitate bera ere erabat asebate eta gure misioa ez da horiek asebetetzea. Talde guztien kritika jasotzean publikoki zein pribatuki adierazten dizkigutenak lidergoa eta komunikatzeko ahalmena dituen hedabide publikoa garela erakusten digute.

Lidergoak erreferentzialtasuna ematen du, lidergoak eragiteko ahalmena ematen du. Eta horregatik politikak dimentsio emozionala duelako, karga emozional handia duelako talde politiko bakoitzak intentsitate handiko ikuskaritza politikoa egiten du hedabideekiko, bere kritika politikoa gauzatzuz.

Legebiltzarrean izan ditudan agerraldietan beti nabarmendu dut EITBk hedabide publikoa izaki, informazioa erreferentzialtasuna mantendu behar duela, erreferentzialtasun positiboa eta eraikitzailea. Hedabide bat balio eta oinarritzen denean, lidergo positibo eta eraikitzailea du. Alderdi politikoak eragile politikoak zarete, Legebiltzarreko mahaian EAEko gizartea dago ordezkaturatuta. Baina alderdi bakar batek ezin du gizarte osoa ordezkatu, dauden interesak ez dute nahitaez batura bat ematen. Askotan aurkako interesak dira eta Legebiltzarreko dinamikak bere bozketa sisteman irabazigaldu kultura sakona du eta gobernu oposizio kultura sakona ere.

EITB hedabide publikoa izaki, instituzioa da berez. Hori horrela da estatutua idatzi den garaitik. Orduan, gauzatu zelako Ertzaintza, Legebiltzarra eta EITB, EAEn autogobernuaren funtsezko sinboloak zirela. EITB instituzio serio eta esanguratsua da. Hain da garrantzitsua ezen interes alderdiko horietatik urrundu behar baitugu. Interes alderdi horiek ez dute saiatu behar EITB kontrolatzen. Eta EITBk ez du interes alderdi horiekin bat egin behar. Iturri ofizial bateko informazioa eskainiko dizuet agerraldia EITBn informazioari eta gaurkotasanari buruz egiten den tratamenduan ardatzen baita.





Ikerketa soziologikoetarako zentroak, CIS erakundeak, 2016. urtearen amaieran egin zuen ikerketa batean. Oso ikerketa demoskopiko fidagarria da bere "trasagarritasunagatik" eta lagin handiarengatik. Galdetutako 2.500 euskaldunek honako galdera honi erantzun zioten. Galdera zen: Zer telebista kate nahiago duzu informazioa jasotzeko? Erantzuna: % 46k ETBren kateak nahiago dituela erantzun zuen; bigarren posizioan, La Sexta zegoen % 14rekin; eta gainerako kateak oso atzetik geratu ziren. Ikerketa soziologikoetarako zentroaren datuen arabera, biztanleriaren erdiak EITBren telebista nahiago du. Eta beste erdia, gainerako kateen artean banatzen da.

Honako galdera honen kasuan, hau da, beste galdera zen: Zer irrati emisorak nahiago duzu informazioa jasotzeko? Eta erantzuna zen: EITBren irrati emisorak nahiago ditu galdetutakoen % 37k; bigarren posizioan Cadena Ser katearen emisorak, % 26rekin; eta beste herena gainerako irrati emisoreen artean...

(4. zintaren amaiera)

(5. zintaren hasiera)

... % 37k; bigarren posizioan Cadena Ser katearen emisorak, % 26rekin; eta beste herena gainerako irrati emisoreen artean banatzen da. Ikerketa soziologikoetarako zentroaren datuak dira hauek. EITB erreferentzia da Euskal Herrian, informazioa emateari dagokionez.

Beste ikerketa askok ere EITB aldezen dute, gure informazio zerbitzuak lidertzat adieraziz sinesgarritasunean, objetibotasunean eta pluraltasunean. Halaber, ikerketa soziologikoetarako zentroak berresten du EAEko biztanleek hein handi batean EITB nahiago dutela informazioa jasotzeko.

Hedabide gisa, zuzendari gisa diskurtso politikoa gizartearen iritzitik bereizi behar dugu. Albistegi editore baten zeregina gizarteak informazioa jasotzeko duen eskubidean oinarritzen da. Egun bakoitzeko informazioa testuinguruan kokatzen du, titularrak lehenesten ditu informazioaren aldetik interesgarria izango den eskaleta egiteko eta eguneko albisteak elkarrekin lehiatzen direla jakinda, informazio-pisu jakin bat ematen dio informazio politikoari. Beharbada ez dena bat etorriko eragile politiko jakin batek nahiko lukeen pisuarekin.

Hor, eskaleta finkatzean eta albistea garatzean, dago kazetarien profesionaltasuna eta zintzotasuna, eta ez botere politikoei poz ematen. Giza





jarduera orotan gertatzen dira akatsak, baita kazetaritzan ere. Gertatzen badira, onartzen ditugu. Baina ez ditzagun nahasi akatsak eta eredu erratikoak. Ikusten dugu kritika politikoa alde guztietatik datorrela, baina beti argudio desberdinekin etortzen dira. Adierazpen ugari, hala nola independentzia-falta, pluraltasun-falta, ez datoz errealitatearekin bat. Ikerketa soziologikoek, berriz, ez diote horrelakorik.

EITBren estilo-liburuaren hitzaurrean jasota dagoen beste argudio-ardatz bat ere jorratu nahi dut. Kazetaritza ona nahitaez da kazetaritza nahitakoa, gazteleraz periodismo intencional. Kazetaritza ona oso ondo ohartzen da zein den bere misioa, zertarako, zeini zerbitzu emateko. EITBk zerbitzu ematen dion herri honek kazetaritza nahitakoa merezi du, ikuspegi kritikoarekin. Ez da huskeria, kazetaritza une zailenetako bat bizitzen ari baita. Diktaduran mugimenduaren prentsa bakarrik zegoen, adierazpen-askatasunik gabe. Prentsako adierazpen-askatasuna duela berrogei bat urte lortu zen, eta orain aldi berri bat bizitzen ari gara, oso prentsa libre gutxirekin.

Hedabideak beren esku dituzten enpresa-taldeetako zuzendaritza nagusiak bankaren eta inbertsio-funtsen kontrolpean daude. Botere ekonomiko lobbyak bere gain hartu ditu komunikazio-talde eta zuzendaritza nagusiak. Lobby ekonomikoen obedientziako kazetaritzaren garaian gaude.

Interneteko albisteez informazio-sentsazio faltsua sortzen dute. Fidagarriak ez diren iturrien gero eta albiste gehiago dago. Argi dago albiste gehiago kontsumitzeak ez duela esan nahi herritarrek hobeto informatuta egongo direnik.

Hortaz, gaur, inoiz baino gehiago, ezinbestekoa da prentsa librea izatea. Eta orain inoiz baino zentzu gehiago du hedabide publikoak izateak, boterearen kontrapisu-izaera dutelako, lobbyen obedientziako prentsa orekatzen dutelako eta *fake news* fenomenoak orekatzen dituztelako. Hedabide publikoak jasaten ari diren zorrotasun eta kontrolaren eta hedabide pribatuen kontrol-falta demokratiko eta parlamentarioaren arteko aldea aipatu nahi dut. Alegia, hedabide pribatuak bere tokian jartzen dituen gauza bakarra merkatuaren legea da, baina kazetaritza librearen oinarriko printzipioetatik kanpo geratzen dira, egia, objektibotasuna eta independentzia bilatzean.

Hedabide pribatu horiek, beren banako interesak legitimoki bilatzen dituztenean, ez dituzte herritarren interes kolektiboak edo publikoak





errespetatu behar. Hedabide horietan titularrak eta informazio kontraesanezkoak ez dira justifikatzen, errealitatea beren interesen gaintik gailentzen denean. Hedabide horiek, nor bere barreraren atzetik, hedabide publikoen egiazko akuilu bilakatzen dira.

Urruzuno jauna, irizpide onez, EITB sortzeko legea eta horretan jasotzen diren oinarriko printzipioak aipatu dituzu. Horri buruz arituko naiz. Baina, hori baino lehen, EITBn zuzendaritza honekin abiatu ditugun bi gauza garrantzitsu nabarmenduko ditut. Hain zuzen ere, nire agintaldian informazio-jarduera Erredakzio Kontseilua martxan jarrita gauzaten dugu. Hortaz, egungo EITBk, 2013ko martxoaz geroztik zuzentzen dudanak, kazetaritza libre eta arduratsua defendatzen duen organo aktibo bat du, kazetaritzaren oinarriko printzipioak eta deontologia profesionala zaintzen dituena. Horregatik esan beharra daukat EITBren informazio-jarduera kazetari-erredakzio bikain batek egiten duela posible.


Erredakzio Estatutu bat dugu, eta Erredakzio Kontseiluarekin harreman bikaina duen zuzendaritza taldea. Errespetuan eta profesionaltasunean oinarritutako erlazioa. EITBk bere kazetariak errespetatzen ditu, horien profesionaltasuna eta hedabidearen neutraltasuna errespetatzen ditu. Hori baieztatu egin daiteke EITBn. Eta nik ere baieztatzen dut, egia eta frogagarria delako. Baina, halaber, baieztatzen dut ezin dela gauza bera esan beste hedabide batzuei buruz, esaterako hedabide pribatuak, ez dutelako halako bermerik. Badakizue Estatuko hainbat hedabidetan kazetariengandik salaketak agertu direla.

Erredakzio Kontseilua kazetarien profesionaltasun eta independentziaren bermea da. Nabarmenezkoa da EITBn egiten den kritika politikoa ez datorrela bat Erredakzio Kontseiluaren kexa edo salaketekin. Hortaz, EITBren kazetaritza-independentzia zaintzen duen elementu garrantzitsua da Erredakzio Estatutua.

Badago kazetaritza-ereduaren profesionaltasuna babesten eta zaintzen duen beste elementu garrantzitsu bat ere, eta da Estilo Liburua. Aurreko zuzendaritzek zenbait saiakera egin ostean...

(5. zintaren amaiera)

(6. zintaren hasiera)





... ereduaren profesionaltasuna babesten eta zaintzen duen beste elementu garrantzitsu bat ere, eta da Estilo Liburua. Aurreko zuzendaritzek zenbait saiakera egin ostean EITBren egungo zuzendaritzak Estilo Liburua argitaratu du. Estilo Liburua ez dabil inguru-minguru eta zuzenean planteatzen du gai editorial konplexueneren trataera egokia. EITBn Estilo Liburua egiteko saiakera ugari egon dira, arrakastarik gabe, aurkako ikuspegiak eta euskal gizartearen politizazio-maila altua zirela eta.

Zuzendaritza honek EITBren Estilo Liburua argitaratu du. Hori argitaratzea bezain garrantzitsua izan da kazetaritza nahitakoaren, zintzoaren eta eraikitzailearen alde egin den oreka-ahalegina: Euskal gizarte heldu baterako pentsatutako kazetaritza, sen kritikoa duten pertsona informatuentzako kazetaritza. Ez da egile batek egindako Estilo Liburua, aditu bati eskatu zaiona. Taldean egindako Estilo Liburua da, eztabaida askorekin, bai unibertsitatearen esparruan eta bai esparru profesionalean, eta milaka ekarpen eta zuzenketa jaso ditu.

Horregatik, balio handiko kazetaritza-eztabaida du atzean. Bi erakunde publiko sinesgarriren, hala nola EITBren eta EHUren arteko eztabaidatik eraikitako Estilo Liburua delako. Estilo Liburuaren hitzaurrean, sinatzen dudan erdiko zatian, kazetaritza-doktrina onenean oinarritutako paragrafo bat dago:

"Egiazko kazetaritza nahitakoa da: helburu bat ezarri, eta aldaketaren bat eragiten ahalegintzen da. Kazetariaren betebeharra informatzea da, gizadiari laguntzeko moduan informatzea, eta ez gorrotoa edo harropuzkeria sustatzeko moduan. Albisteak bestearen ezaupidea handitzeko balio behar du, bestearen errespetua handitzeko. Gerrak beti hasten dira lehen tiroa entzun baino askoz lehenago; hedabideetako hitz-trukearekin hasten dira."

EITBren Programa Kontratuak kontestu instituzionala eguneratzen du eta erantzun erabilgarriak eskaintzen ditu benetako kazetaritza nahitakoa jorratzeko moduari buruz, eta horren aurrean ezin da eragozpen handirik jarri. Hortaz, ez dugu soilik EITB sortzeko Legea; Programa Kontratua ere biziki dokumentu garrantzitsua da, EITBren informazio-zeregina ulertzeko, objektiboki hartzeko eta baloratzeko orduan.

Programa Kontratuak zerbitzu publikoko konpromisoak ezartzen ditu informazio-arloan. Zehazki, honako hau dio: Lehenengokoa, kalitatezko informazioak esan nahi du EITBk beti eman behar duela informazio kontrastatua erreferentziazko informazio-iturrietan eta informazio hori





kualifikazio profesional egokia duten kazetariak prestatu behar dutela. Bigarrena, EITBren kazetaritza-jarduera profesionala, egia, askatasuna, pluraltasuna eta giza eskubideak defendatzera bideratuta dago. Hirugarrena, EITBk euskal herritarren beharrak estaliko ditu. Laugarrena, EITBk espazio zabala eskainiko die instituzioei, eragile politiko, ekonomiko eta sozialei, eta, orobat, gizarte zibila ordezkatzeko duten erakundeei.

Bosgarrena, EITBk gizarte-kohesioa lortzeko funtzioa du, berdintasunerako, aniztasunari arreta emateko eta giza eskubideak sustatzeko informazio-politika garatuz. Seigarrena, EITBk hausnarketa-espazioa sustatu behar du eta sortzen ari diren gizarte-fenomenoen zentzua eta ondorioak aztertzeke ahalmena izan behar du. Zazpigarrena, EITBk proaktiboa izan behar du Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzeta planak garatzeko orduan. Zortzigarrena, EITBk bere gain hartzen du euskal autogobernua eta horren instituzioak sustatzeko, ezagutarazteko eta defendatzeko printzipio editoriala. Bederatzigarrena, EITBk berezkoz hartzen ditu euskal gizartearen konpromiso instituzionalak garapen ekonomikoaren, zientifikoaren, teknologikoaren eta ingurumen-garapenaren arloan. Eta hamargarrena, EITBk konpromisoa hartzen du erakundeari berari buruzko informazio-politikak gardentasun maximoa izan dezan.

Hamar ardatz horiekin EITBren kazetaritza-epizentroan euskal gizartea dago, eta horrek bereizten du EITB gainerako hedabideetatik. Hortaz, gure informazio-zeregina oso argi dugu. Oso argi dugu ez dugula sartu behar dialektika alderdikoietan. Jabe gara gure independentzia goستن dela, eta alderdiekiko eta instituzioekiko obedientziarengandik urrundu behar dugula. Guk ikuspegi plurala eskaintzea bermatzen dugu. Gure kazetariak herritarrei informazio oso eta fidagarriena eskaintzeko beharrezkoak diren ikuspegi guztiak ezagutzera eta ezagutaraztera behartuta daude. Hau da, informazio-oreka eta pluraltasuna eskaini behar dizkiegu, Legebiltzar honetan ordezkatzuta dauden sentsibilitate desberdinak ikusgai jarritz.

Amaituko dut. Gizarte demokratikoen izaera konplexua azaldu dut. Esan dut interpretazio-gatazka gizarte demokratikoen berezkoa dela. Bestetik azaldu dut ere distantzia politikoz eta hoztasunez jarraitzen dugula informazioa eskaintzen. Ikus-entzuleek egunero jarraitzen gaituztela jakinda, eta hedabidea zein profesionalak babesten dituztela jakinda, egunero ematen baitute aditzera zer hedabide nahiago duten.





Azaldut kazetaritza burutsua kazetaritza nahitakoa dela, Estilo Liburuan jasota dugun moduan eta Programa Kontratuan ere garatuta dagoen moduan, EITB sortzeko Legearen oinarriko printzipioak bermatzeko. Azaldut ere kazetaritza-lanaren independentzia mantentzen dugula. Erredakzio Estatutua dugula, errespetuan eta profesionaltasunean oinarrituta. Erredakzioan ardura editoriala duten karguak eta zuzendaritza Erredakzio Kontseiluarekin harremanetan jartzen dira, izendatu aurretik, eta horietako bati berari buruz ere ez da egon inongo oharrik izendapena egiteko orduan.

Eta azkenik, EITB sortzeko Legean jotzen da hedabide hori berebiziko tresna dela euskal herritarren informaziorako eta partaidetza politikorako. Ahal bezain ongi...

(6. zintaren amaiera)

(7. zintaren hasiera)

... Legean jotzen da hedabide hori berebiziko tresna dela euskal herritarren informaziorako eta partaidetza politikorako. Ahal bezain ongi jarduten dugu, zintzotasunez eta profesionaltasunez, profesional-talde bikain batekin eta onarpen handiarekin, ikus-entzuleek eta euskal herritar gehienek lehenetsunak adierazten duten moduan. Eskerrik asko.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko, Iturbe anderea. Taldeen lehenengo txandarekin hasiko gara. Lehenengo eta behin, EH Bilduren izenean, berriro ere, Urruzuno jaunak hartuko du hitza.

URRUZUNO URRESTI jaunak: Bai. Beno, gauza asko esan dira, baina hasteko, nahiko deigarria da. Nahiko deigarria da.

Hitz egiten da independentziaz eta kazetaritza libreaz eta alderdietatik urruntzeaz eta horrelako hainbat kontzeptuaz. Eta, aldi berean, zer horren diskurtsoa oinarritzen duzu alderdi jakin bateko zerrendaburu jakin bat izan denaren gogoetetan. Ez dakigu hori kasualitatea den, baina uste dugu horrelako zerbait badagoela guk gaur hemen salatu nahi dugun kontu honetan. Uste dugu, ba ez dakit, hori nahi gabe edo nahita egiten den, baina tendentzia hori dela eta badagoela horretaz zerbait.





Esan duzu gurea balorazio... bai, da geroa baikor zerrendaburua da, guztia esan behar baldin bada.

(Berbotsa)

Orduan, hasteko. Normaltasun osoz. Balorazio subjektiboa dela esan duzu, alegia esaten dugunean ea zergatik ETB ez den edo zergatik EH Bildurekin tematzen den beste batzuekin egin ohi ez duen bezala. Eta esaten da hori, balorazio subjektiboa dela, halakorik ez dakit nik gertatuko balitz bezala.

Galdera beste era batetara egin dezaket. Inoiz hartu du EITBk horrelako jarrerarik adibidez Urkullurekin edo Andoni Ortuzarrekin? Hartu du? Inoiz? Es que, horrelako galderak egiten ditugunean, ematen du nolabaiteko harridura sortzen dela. Inoiz egin du Urkullurekin. Egingo du inoiz? Eta argi gera dadila gu ez garela planteatzen ari egin behar denik. Hori lehen ere lehen hitzartzean ere esan dut. Horrelakorik ez gertatzea nahi dugu. Eta nahi ditugu bermeak horrelakorik gerta ez daitezen.

Eta lehen ere esan dut, gertaera hau ez da gertaera isolatu bat. Ez da gertaera soil bat. Muinean badago beste arazo bat. Muinean badago beste arazo bat. Eta EITBren lerro editorialaz eta informazioaren trataeraz ari garenean, ez?, eta gaur hemen ekarri dugun gai konkretuaz beraz ari garenean, alegia, herri honetan eskenatoki bat zabaltzen da urteetako indarkeria zikloaren zati bat bukatua denean. Eskenatoki berri horiek elkarbizitzaren oinarrian eragiteko aukerak daudenean, o sea, zein da EITBren funtzioa? Zein da EITBk eskenatoki hori sustatzeko egin behar duen papera?

Hemen badago hitzarmen bat, 2014. sinatutakoa, EITB eta Eusko Jaurlaritzaren artean, non hor definitu egiten den EITBk bakegintza elkarbizitza deitzen den horretan izan beharreko jarreraz. Alegia, Gobernuak esaten dio EITBri gai hori nola tratatu behar den. Gobernuak ezartzen ditu irizpideak nola tratatu behar den. Eta guk uste dugu Gobernuak, eta Gobernuak osatzen duten alderdiak kontu aurrekiko "errelato" oso partzial baten elikatzean daudela.

Eta badago beste kontu bat. Sinatzen da Plan Estrategiko bat 2013-2016rako, jada pasatua dagoena. Eta Plan Estrategiko horretarako ere, aipatu gaiari dagokionez, ez dakigu non alderdi batzuek ezartzen dituzte Plan





Estrategiko horrek ere gai horrekiko jarraitu behar dituzten irizpideak. Eta hori da arazoa.

Eta guk esaten dugu, EITB alderdien eta Gobernuaren esanetara dago? EITBk ez du irizpide propiorik hemen urteetan gertatu denaz eta aurrerantzean jokatu beharreko paperaz? Gobernuak esaten dio EITBri herri honetan gertatu denaz kontatu behar duena? Non geratzen dira hedabide publiko baten printzipioak? Ekarpen periodistikoa? Orain aipatu dituzuen neutraltasun Erredakzio Kontseilu independentzia, kalitatezko kazetaritza,... Horiek non geratzen dira? Horretaz aritu behar garen honetan. EITBk besterik gabe? Ontzat ematen ditu PNVk esaten dizkionak? Gobernuak esaten dizkionak?

Kazetaritza librea, deontologia, Erredakzio Kontseilua, independentzia, ardura editoriala. Nik ez dizut ukatuko esan dituzun horiek. Nik ez dut esango horiek gezurrak direnik, baina horiek bezain egia da ere, adibide bat jartzearren, apirilak 24an ETBko langile batzordeak, ez EH Bilduk, ez eta sindikatu jakin batek, ETBko langile batzordeak, enpresa komiteak adierazpen batean ateratako nota...

- (7. zintaren amaiera)
- (8. zintaren hasiera)

... jakin batek, ETBko langile batzordeak, enpresa komiteak adierazpen batean ateratako nota batean, pasarte batean, esaten du: "chiringuito publikoa nahieran kudeatzen da Sabin Etxeatik."

Hori enpresa komiteak esan zuen. Enpresa komite batek hedabide publiko baten inguruan halakoak esateraino helduz gero, ba nik uste dut hori hurrengo egunean dimisioamahi gainean jartzea bezalako garrantzia edo larritasuna duela.

Hedabideen funtzio sozialari zilegitasuna ematen dion zera hori, ahaztu edo alboratu egin dela uste dugu. Interes informatiboari baino beste era bateko interesei erantzutearekin zerikusia duen ahaztura eta alboratzea da gure ustez. Eta horrek hedabideen egitekoa desitxuratu egiten du. EITBren egitekoa desitxuratu egiten du.

Daniel Innerarity aipatu duzu eta bere aipuak jarri dituzu. Guk uste dugu momentu honetan, hemen, ez dagoela interpretazio gatazkarik. Ez gaude kasu konkretuetaz gertaera soilez hitz egiten. Hemen badago eredu bat eta





eredu horrek interes jakin batzuei erantzuten die. Eta hor ez dago interpretazio gatazkarik. Daniel Innerarityren aipuak ondo etorriak dira, baina aipuak guztiok egin genitzake.

Nik liburu bat irakurri dut: "Ética de los medios de comunicación." Bertan, hainbat kontzeptuez hitz egiten da. Hainbat kontzeptuez hitz egiten da, hainbat kontzeptu lantzen dira. Eta niretzat badaude aurrerantzean, etorkizunean, EITBrentzat baliagarriak izan daitezkeen hainbat gomendio. Eta kontzeptu askoren artean, eta batik bat bakegintza edo elkarbizitza auzi horretaz ari garen momentu honetan, badaude ere oso garrantzitsuak eta oso gomendagarriak izan daitezkeen kontzeptuak. Hitz egiten da, adibidez, etika diskurtsiboaz. Eta etika diskurtsiboaren inguruan, esaten dena da, eta nik ere literalki irakurriko dut esaten dena:

"La propuesta de ética discursiva es una extensión de la teoría de la acción comunicativa al ámbito moral. Se trata de un procedimiento que busca garantizar la imparcialidad de la formación en la formación del juicio. Y tiene aspiración universal, porque para la ética discursiva, una norma sólo puede aspirar a tener validez cuando todas las personas a las que afecta consiguen ponerse de acuerdo, conforme al cual sólo son válidas aquellas normas que puedan ser asentidas por todos los posibles afectados."

Eta niretzat hori da erronka. ETBk aukera bat dauka. ETBk ere aukera bat dauka, baina ETBk ez da alderdi politiko bat. ETB ez da ente pribatu bat. ETBk neutraltasuna eta objektibotasuna eta independentzia gorde egin behar ditu alderdi politikoek zertan gorde ez daukaten bezala. Gorde egin behar du. Eta ETBk aukera egin behar du. Eta ETBk ere, alderdi batzuek defendatzen duten errelato partziala, elikatzerara pasatzen da edota ETBk onartzen du bere osotasunean herri honetan gertatutako guztia. Eta ETBk egiten ditu egin ahalak, egiten du bere funtzio sozialaren arabera, zer beste alde hori ere ETBren parte da ere.

Beraz, hartzen du posizio aglutinatzaile bat. Hartzen du posizio bat bakegintza eta elkarbizitza sustatzekoa, edota ETBk jarraituko du izaten errelato partzial baten alderdi interes konkretu batzuen baitara mesedetara dagoen tresna bat.

Bukatzeko, ardura editoriala ere aipatu duzu. Guk mila aldiz defendatu dugu ardura editorialetarako ere, karrera profesionala sustatu behar dela EITBn. Mila aldiz salatu dugu. EITBren informatiboak egiteko ardura duten





postuak atzamarrez hautatzen dira. Zergatik ez dira horiek karrera profesional bitartez, testableak diren, neurgarriak diren froga objektiboekin aukeratzen? Aukeratzen dira atzamarrez. Eta atzamarrez aukeratzen denean, ba kriterioak beste batzuk izatera pasa daitezke. Besterik ez.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko, Urruzuno jaunak. Talde Popularraren izenean, Llanos andereak dauka hitza.

LLANOS GÓMEZ andreak: Sí. Yo, brevemente. Pedir disculpas por haber llegado tarde, pero tenía otra cuestión y esa ha sido la razón también de la posposición de los dos primeros puntos que eran comparecencias a petición de esta parlamentaria.

Yo, simplemente, igual lo ha explicado al principio la señora directora, pero la comparecencia era del Director de ETB, y sin embargo está la directora del ente. No sé si ha explicado ya la razón, pues lo estaré atenta a la transcripción de esta comisión. Y si no, pues sí solicitaría ahora la razón de este cambio.

Y yo en lo que le he oído, que le he oído lo del final. Es verdad que ha establecido o ha defendido una serie de cuestiones que es verdad que debieran de ser características de EITB: pues como la pluralidad, la independencia, el periodismo libre. Porque evidentemente son principios básicos que están en la Ley de creación del ente, están en el plan estratégico. Pero no basta con que estén allí. No basta con que estén encima de un papel.

El camino se demuestra andando y es necesario que esa independencia, esa pluralidad, ese periodismo libre tenga reflejo en los informativos y en el resto de...

(8. zintaren amaiera)

(9. zintaren hasiera)

...necesario que esa independencia, esa pluralidad, ese periodismo libre pues tenga reflejo en los informativos y en el resto de programación. Y en muchos casos desde este grupo ya hemos denunciado eso al final se quedan en afirmaciones grandilocuentes, en meros principios que aparecen en una





ley y en un plan estratégico, pero que luego no tienen, la verdad, ninguna correspondencia con la realidad.

Nada más. Muchas gracias.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko.

Hurrengoko taldea, talde Sozialistaren izenean Romero andrea.

ROMERO POZO andreak: Sí. Gracias, señora presidenta.

Pues responderé a las explicaciones que da la directora general del ente, dado que ha asumido la sustitución del señor Barinaga, ¿no?

Nosotros creemos que en este caso, yo creo que también en el fondo así estaba planteada la solicitud de comparecencia, estamos hablando de la independencia editorial de la televisión pública. Pero, como hemos constatado, primero se circunscribe a cómo se trata la información relativa a un partido concreto, aunque luego se haya ampliado.

El grupo socialista considera que efectivamente las informaciones, ninguna información, deben tener una interpretación ideológica por parte de los profesionales en ningún caso y con respecto a ningún partido. Pero si queremos ser justos, el grupo socialista entiende que tampoco se puede descargar la responsabilidad de la independencia exclusivamente en los profesionales, las profesionales, que elaboran la información y que da la imagen en la información. Habrá que hacerlo en mayor medida en quienes elaboran escaletas, quienes deben supervisarlas antes de su emisión para verificar que se corresponden con los principios marcados en la Ley de EITB, en el estatuto de redacción y en el propio libro de estilo, y habrá que hacerlo en mayor medida aún, en mayor medida aún, en quienes nombran a esos responsables, a esas responsables de equipos, "arloburus", jefes de sección, jefes de informativos o editores.

Tanto la directora aquí presente como los grupos que formamos parte también de la comisión conocen nuestras diferencias con esa forma de gestión existente en la actualidad, que impide una cadena... una carrera de





profesionalidad, una cadena de profesionalidad, en todos los ámbitos, con la implicación de la gente de la casa.

Y pueden suponer todos que cuando vemos los informativos, créanme, tampoco los socialistas nos vemos reflejados como nos gustaría, ni en enfoques de temas, ni en selección de totales, ni en edición de imágenes. Pero para eso creo que todos también los grupos tenemos los gabinetes de comunicación que seleccionan lo que cada cual consideran más interesante, perdón, de nuestro mensaje.

Otra cosa es que todos los partidos sin excepción, y en eso tenemos todos derecho a reclamarlo porque es nuestro derecho, exijamos un equilibrio a la hora de seleccionar los asuntos en los que tenemos presencia en nuestros medios públicos, que nuestros mensajes salgan limpios, sin interpretaciones, y que si unos partidos siempre tienen cabida con sus propuestas no referenciándose a propuestas de otros, la misma oportunidad exista para todos, o que si las tesis que defienden unos se pueden ver acompañadas de grupos sociales de distinta índole, las de otros también. Y mi grupo quiere que así sea, insisto, para todos sin excepción.

(...) Se ha denunciado una situación de un partido del reflejo que tiene en el ámbito informativo. Y hay quienes preferimos defender la misma oportunidad para todos, porque todos no tenemos... o creemos que nuestro reflejo no está hoy por hoy en la radio televisión pública vasca. Porque lo comento en esta casa hemos tenido y todos conocen muchos debates sobre la independencia informativa de EITB. Lo que refleja que esto ha pasado de ser una preocupación a una grave preocupación que debemos de resolver cuanto antes, porque no dejan de presentarse los debates y las propuestas. Cuando hay quien solo ve parcialidad estamos ante un grave problema. Lo que pasa es que hay veces que solo se ve cuando en un suceso en concreto y no se ve cuando o afecta a otros colectivos.

Pero hoy, insisto, me ha parecido ver que se cuestiona a una profesional de la casa. Y me gustaría, en ese sentido, determinarlo como lo he dicho al principio, no es solo la que elabora la información ni la que pone la cara en la información y la relata, sino toda la cadena que antes he comentado.

En ese sentido, quería preguntarle si..., a la directora, tenía puesto al director, pero a la directora, si va a tener en cuenta todo lo que hoy les manifestamos sobre la cuestión concreta del grupo proponente y su petición





concreta con respecto a una cuestión que él ha detallado y no voy a subrayar, sino la que hacemos todos los demás y cuál va a ser el esfuerzo que haga la directora para intentar consensuar un nuevo modelo que garantice la independencia y la pluralidad. Porque yo no creo, si es así, peor, como si..., como se ve o como se ha detallado que se ve que una... la radio televisión pública vasca tenga que tener la línea editorial de nadie. Yo creo que la radio y televisión pública vasca ha de ser un servicio público que, tal incluso como ponía en la solicitud que ha dado lugar a esta comparecencia, dé respuesta a los criterios de profesionalidad, veracidad, objetividad en la información, imparcialidad y respeto a la pluralidad, a los valores éticos y democráticos y a la cohesión social. Esto último sí lo he añadido yo que queremos plantearlo dentro de la reforma integral de EITB.

Por lo tanto, nosotros intentamos lograr ese consenso. Creemos que en este momento no se tiene y que parte de la responsabilidad sobre ese cuestionamiento día sí y día también de la parcialidad de los informativos y de los programas se debe en todo caso en una gran medida al sistema de gestión.

Creo que no se trata solo de sumar los minutos de unos u otros, sino de que esa pluralidad real se vea reflejada, no solo en minutos, sino en posiciones y valoraciones respecto a todos los temas y no hablar de referencia unos de otros. Pero no por nosotros, por quienes puedan salir en la tele, sino por los que queremos que vean la tele, por aquellas personas que queremos que vean nuestra televisión, por la ciudadanía vasca que hoy todos...

(9. zintaren amaiera)

(10. zintaren hasiera)

... puedan salir en la tele, sino por los que queremos que vean la tele, por aquellas personas que queremos que vean nuestra televisión. Por la ciudadanía vasca, que hoy todos admitimos de manera grandilocuente que es plural y diversa, y necesita razones para reconocerse en nuestra radiotelevisión pública vasca y no reconoce sólo una parte que no la representa. Muchas gracias.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko. Elkarrekin Podemosen izenean, Arana anderea.





ARANA VARAS andreak: Bai. Egun on. Para nosotras también ha sido una sorpresa este cambio de última hora y que esté usted aquí hoy y no el señor Barinaga. En fin.

En la justificación de petición de comparecencia del señor Urruzuno, hablaba de la falta de independencia de los medios de comunicación públicos. De que la falta de independencia de los medios de comunicación públicos atentan contra la pluralidad política y social y contra la esencia misma de la democracia, ya que vulnera el derecho de la ciudadanía a recibir una información veraz e independiente. Este nos parece un debate muy pertinente.

Mire usted, nosotras llevamos meses denunciando, supongo que lo sabe, que el actual modelo de EITB está agotado. Sobre los informativos, que muchos días parecen la crónica de la actividad de Gobierno, hay que señalar que su gubernamentalización y uso partidista es más que evidente. Luego ofreceremos algunos datos que corroboran esta afirmación.

Como ya se ha señalado, la Ley de EITB estipula como criterios básicos de la actuación de EITB la objetividad, la veracidad, la imparcialidad y el respeto a la pluralidad. La objetividad como sabemos, tiene que ver con ofrecer una información sin elementos de juicio y/o subjetivos. La veracidad y la imparcialidad también se refieren a criterios periodísticos en la elaboración de la información. La pluralidad es, o al menos debería ser, social y política. Esto quiere decir que existe, o mejor dicho, debiera de existir representatividad de la sociedad civil organizada... Ya sabe, movimientos sociales, sindicatos, plataformas ciudadanas, etcétera, y de los partidos políticos que representan a la ciudadanía en las instituciones vascas.

Mire, la primera idea que me deja su intervención es que resulta bastante complicado de entender como usted, que ha sido reprobada con una dirección elegida a dedo, que a su vez elige a dedo a las y los representantes de la elaboración de los espacios informativos, pueda venir a aquí a tratar de defender que estos objetivos se cumplen sin sonrojarse lo más mínimo. Y espero que no me diga que los cargos directivos y los puestos de responsabilidad en informativos no se eligen da dedo, porque hace bien poco el consejo de redacción dejó bien claro cómo se hacen estos nombramientos.





Pero, vamos a lo concreto. Es una evidencia contrastada que los informativos de EITB, la información institucional prima sobre los demás. Es decir, la presencia del partido de Gobierno es mayoritaria en todos y cada uno de los espacios informativos. En un año, de febrero del 2017 a enero de 2018 60 horas dedicadas a las instituciones vascas. Información que, por otra parte, no se ofrece esbozada en este Parlamento; estaría bien que lo hicieran. Frente a 23 dedicadas a los partidos políticos. La presencia de la sociedad civil y sus organizaciones, que tampoco se mide, es muchísimo menos. La presencia de las mujeres, sabido es, no se corresponde con la realidad de su situación social. Las mujeres, como ya sabe y no me cansaré de decirle, no están representadas ni tan siquiera en un 40-60 % en las tertulias, en los debates, por no hablar en los informativos que prácticamente no aparecen. Y ya si vamos a los informativos deportivos, ya mejor lo dejamos aquí parado.

Si le parece, hablamos ahora de la condición básica para que se produzca una información veraz, objetiva, independiente y reflejo de la pluralidad del país. Pero, especialmente, de la primordial, que es de la sociedad civil y los partidos políticos que representan, no se nos olvide, a la sociedad por la que han sido votados. Reciban un tratamiento a su representatividad. Creo que es de principios bastante lógico de entender. Los informativos de EITB tienen un alto porcentaje de información política, como se puede observar a diario si encendemos la tele. También hay datos que lo corroboran. Sin embargo, si hacemos un análisis cuantitativo de la presencia de los cinco partidos políticos vasco, hay algunos datos que llaman la atención y que vuelven a dejar en evidencia sus afirmaciones sobre la objetividad, la imparcialidad y el respeto a la pluralidad.

Termino esta primera intervención, señora Iturbe, por tanto, con una pregunta: ¿Cree usted que la representatividad de la sociedad civil y de los partidos políticos se corresponde con la pluralidad de la sociedad vasca? Eskerrik asko.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko. Eta azkenik, Euzko Abertzaleak taldearen izenean, Oregi andereak dauka hitza.





OREGI BASTARRIKA andreak: Bai. Eskerrik asko, presidente anderea. Egun on, guztioi. Egun on, Maite Iturbe eta Andoni Aranburu gurekin egoteagatik. Eskerrik asko. Eta eskerrik asko emandako azalpen guztiagatik.

Niri asko gustatu zait hasteko modua, Innerarityren hitz batzuekin. Oso pentsalari edo etikan inguruan eta pentsaeraren inguruan aditu aitormen handikoa. Eta eskerrik asko ekartzeagatik horrelako zitak eta horrelako ekarpenak, zer nik uste dut pentsarazteko ematen digutena, baita beste esparru batzuetan aukera izan dugu Innerarity gurekin edukitzen, Legebiltzar honetan legealdi honetan. Eta beno, beti esaten nuen bezala, beti aberasgarria dela.

Egin duzu aipamen batzuk. Eta nik uste dut datu asko eman diguzula. Ez zara ibili kontuak iritziz iritzietatik aipatzen ezta zer sentitzen duzun. Beste komentario batzuk entzun ditut hemen gehiago izan dira subjektiboagoak zureak baino. Eta nik eskertzen dizut, zer nik uste dut zure papera hori da: objektibotasunez hitz egitea. Esan diguzu EITB erreferentea dela. Eta instituzio serioa dela. Eta nik horrekin bat nator.

Eta baita eman diguzu CISEko datu batzuk. Beraz...

(10. zintaren amaiera)

(11. zintaren hasiera)

...dela, eta instituzio serioa dela. Eta nik horrekin bat nator.

Eta baita eman diguzu CISEko datu batzuk, beraz, abiatu zara datu konkretu batzuetatik. Baita kontatu diguzu erredakzio kontseilua daukaguzue, zelan funtzionatzen duten, zelan antolatzen diren eskaletak, zelan erabakitzen diren gauzak. Eta, baita aipatu duzu, ba beste hainbat gauza: estilo liburua, programa kontratua, legea, hasi hasieran daukagu... hasi hasieratik daukagun legea. Eta nik uste dut horiek guztiak hor daude, eta egia da, eta egiten dute zerbitzu publiko garrantzitsu bat daukagula mahai gainean. Eta baita egin duzu aipamena, pribatuak zelan jokatzen duten eta gurea, EITB, zelan jokatzen du zerbitzu publiko bat izanik. Eta ze garrantzia daukan diferentzia hori kontuan izateak eta ze garrantzia daukan zerbitzu publiko bat izateak.

Beraz, ni horretan ere aritu naiz askotan kamara honetan, ganbara honetan eduki ditugun eztabaida guztietan eta berriro aldarrikatu nahi dut,






gaur ere, zerbitzu publikoaren garrantzia. Eta horretarako nik uste dut beti egon beharko garela prest eta adi gauzak hobetzeko eta gauzak okerrera ez joateko. Baina, hobetzeko horretan badaukagu tresna bat ipinita, Legebiltzar honek ipinita eta hori ponentzia da. Hainbat lan egin dugu ere... jada gauza batzuk kostata, baina martxan jarri dugu azkenean eta nik uste dut hortik doazela gauzak. Hor lan egin behar dugu, hortik mugitu behar garela talde guztiak eta hor planteatu behar ditugu eredu, nahi baldin badugu eredu aldatzea. Ze, eredu badago. Zuk kontatu diguzun eredu, gaur daukagun eredu, egun daukagun eredu, eta eredu hori niretzat ona da, eta bermatzen ditu hainbat gauza.

Batzuk hemen esan dute sentitzen dira... ez dakit, baztertua, minduta,... Seguramente, galdetzen badiegu beste batzuei, beste aktore batzuei esango dute, batzuetan, gauza bera. Eta nik uste dut hori ez da izan behar neurgailua. Nik uste dut arkitektura osoa hartu behar dugu, zelan antolatuta dauden gauza guztiak EITBn eta hortik aurrera gauzak kudeatu.

Yo creo que tenemos una estructura de todo el... de todo EITB, de todo el conjunto de EITB, una estructura con sus diferentes ámbitos, con sus diferentes controles, con sus diferentes contrapesos de gobernanza, que creo, que está bien. Creo que no tenemos que bajar la guardia. Pero creo que los elementos de trabajo que tenemos encima de la mesa son útiles, son válidos y debemos de profundizar en ellos y debemos de seguir trabajando para mejorar ese servicio público, que yo creo que tenemos que guardar, como decía, como un tesoro y evitar perderlo.

Más allá de las sensaciones, de las cuestiones subjetivas, de cómo nos siente a cada uno de nosotros, a veces, como salen las noticias o como salen determinados temas. Yo creo que hay que levantar un poco la nariz de ese plano y hay que ver el conjunto de la institución. Se ha dicho aquí, que es una de las instituciones fundamentales del autogobierno vasco. Estoy convencida de que es así. Y creo que debemos de trabajar en positivo para mantener ese servicio público audiovisual vasco. Y además, mejorarlo, y además, hacerlo entre todos y todas. Eskerrik asko.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko, Oregi anderea. Iturbe anderea, erantzuteko txanda zurea da.





EITBKO ZUZENDARI NAGUSIA (Iturbe Mendialdua): Bueno, eskerrik asko guztioi.

Gauza batean behintzat ados gaude. Eta ados gaude EITB objektiboa izan beharko litzatekeela, inpartziala, neutrala, pluraltasuna,... guzti horretan ados gaude. Eta ez da... Ados gaude baita ere EITB ez litzatekeela izan beharko alderdi politiko baten alde jokatu behar. Eta hori ere, ados gaude horretan. Ez gara alderdi politiko bat, eta lehengoko zatian hori behin eta berriro esan dugu. Baina ikusten dugu interpretazioak desberdinak daudela. Eta hemen ere, adibide hori, ikusi da mahai honetan, ba zuen interbentzio guztiak interpretazioak izan dira, eta bakoitzak bere argudioarekin interpretatzen du, ba gu ez gara objektiboak eta ez gara independenteak, eta oso arazo larria daukagula. Guk ez dugu hori sinesten, ez dugu hori defendatzen. Baina bai kontzienteak gara ikuspegi hori dagoela eta, orduan, ba adosteko, o sea, badaukagula lana, ezta?

Nolabait, lehen Urruzuno jaunak irakurri digun etika diskurtsibo horretan, ba agertzen zen helburu inportante hori iristeko, ezta? Ea unibertsalak izatera iristen garen. Horretan dihardugu, horretan dihardugu. Bestetik, bueno, ba alderdi bakoitzak bere interpretazioa egin du, berriro diot, ez dira gauzak konkretutaz hitz egin hemen. Bueno, lehen bai, hasieran, baina bestela, oro har, jeneralean hitz egiten egon gara. Eta, galdera konkretu bat egin didate baita ere. Esanez, ea uste dugun ongi errepresentatzen dugun gure telebistan, nahiko pluralak garen, edo pluralidadea errepresentatzen duen. Ea sinesten dugun. Bai sinesten dugu. Sinesten dugu eta, gainera datuak ditugu eta nahi duzuenean datuez ere hitz egin dezakegu.

Beste gauza konkretu bat ere hitz egin da, eta aipatu da, eta izan da sindikatuak, eta sindikatuek egin zuten, berriro ere diot, interpretazio bat. Eta ez ziren inongo datu objektiboan fundamentatzen beren balorazio egiteko. Esanez txiringuito bat gara, Sabin Etxerako lan egitea... ez dakit, ez naiz kapaz errepikatzeko, baina bueno, txiringuito publiko bat gara, ezta? esanez.

Bueno, guk uste dugu, a ver, zuzendaritzak sindikatuen eremua biziki errespetatzen du. Baina organo bakoitzak bere eremua du, eta bere egitekoaren irizpidea mugatuta dago. Gizarte demokratiko batean, organo eta interes talde asko dago. Bakoitza bere egitekoarekin. Ikusi izan ditugu ere sindikaturen batzuk erredakzio antolaketa proposatu nahian, baita albistegiak baloratzen. Sindikatuaren betekizuna, lan arloari dagokio eta kazetaritzaren





munduan aspaldidanik dago hedatua hedabideetan. Kazetaritzaren elkartasunaren eta kazetaritzaren profesionaltasunaren...

(11. zintaren amaiera)

(12. zintaren hasiera)

...eta kazetaritzaren munduan aspalditik dago eratuta hedabideetan. Kazetaritzaren neutraltasunaren eta kazetaritzaren profesionaltasunaren zaintza erredakzio kontseiluari dagokio, eta ez sindikatuari.

EITBn kazetaritzaren neutraltasuna eta kazetaritzaren profesionaltasuna zuzendaritzak ere gogoz zaintzen du. Sindikaturen batek kazetaritari buruz hitz egin dezake baina hedabideontzat, hemen eta hemendik kanpo. Balio gutxiko ekarpenak dira, sindikatuak berengan duen interes politikoa bideratzeko egiten baita. Eta agente politikoez ari bagara, horren gunea Legebiltzarra da, Legebiltzarrean dauden alderdiak. Ez dira sindikatuak Legebiltzarreko hauteskudetara aurkezten.

EITBko erredakzio kontseiluak esan izan ohi die sindikatuei lan eremuan aritzeko eta ez sartzeko inola ere erredakzio kontseiluaren arlokoak diren eremutan. Erredakzio kontseiluak bezala, zuzendaritza honek profesionaltasuna zaintzen dugu, baita elkarren arteko kolaborazioa estua da. Erredakzio gaietan ere badago beste organo bat, berdintasun taldearen edukietarako komisioa. Zuzendaritzaren babesa du organo horrek ere. Beraz, nahiko organo badugu gure egitekoa profesionaltasunez garatzeko.

Agerpen honetan konklusio hau eskaini nahi dizuet: beste hedabideen aldean EITB kazetaritza independentearen garantia dela. Kazetaritza profesionala, sinesgarria eta irekia egiten dugu, euskaraz eta gazteleraz. Horretan datza EITBren prestigioa eta lidergoa.

EITBren profesionaltasuna oinarrizko printzipio hauetan mantentze da: lehenengokoa, EITBk argi eta garbi bereizten ditu informazioa eta iritzia. Informazioa gertakarien kontakizun objektiboan oinarritzen da, informazioan ez dira sartzen kazetariaren iritzia.

Bigarrena, kazetariak beharrezko ikuspegi guztiak ezagutu eta zabaldu behar dituzte, herritarrei informaziorik osoena eta fidagarriena helarazteko. Ikuspegi kontrajarriak daudenean oreka zaindu beharko da alderdiei eskaintzen zaizkie tartetean, beti ere irizpide informatiboen arabera jokatzuz.





Hirugarrena, gertaera berri baten berri ematerako orduan EITBko berriemaileak inpartzialak izango dira azalpen, deskripzio eta kontakizunean. Jardun profesionalean ezin daiteke egon ez desorekarik, ez joerarik. Ez titularrek, ez testuek ez dute interpretazio faltsurik edo okerrik eragin behar.

Laugarrena, EITBko profesionalek neutraltasunez jokatuko dute, eta ez dira albiste-iturriaren gertaeran inplikatu, alde batera utzi beharko dituzte euren ideiak eta zaletasun pertsonalak.

Bosgarrena, EITBn sinesgarritasuna izango da lehentasunezko helburu iraunkorra, espekulazioa eta uste edo susmoen zabalkundea baztertu egingo dira. Akatsak berehala zuzenduko dira ardua handiz.

Irizpide hauek EITBren Estilo Liburuan jasoa daude. Nire lehen atalean aipatu dut ez dugula norabide gabeko kazetaritzarik egin nahi. Egiazko kazetaritza nahitakoa da, helburu batekin, gizartean aldaketa eragiten ahalegintzen dena. Gure kazetaritza lana informatzea da, gizadiari laguntzeko moduan informatzea. EITBn gorrotoa zein harropuzkeria sustatuko duen kazetaritzak ez du tokirik. Gure albisteek bestearen ezaupidea handitzeko balio behar du, bestearen errespetua handitzeko.

Egunotan Cannesko zinemaldian EITBk babestutako filma, animaziozko filma, estreinatu da, aukeratu da sekzio ofizialerako. *Un día más con vida* filma izan da. Filma horretan Ryszard Kapuscinski kazetari handia agertzen da. Kapuscinski kazetariaren pentsamendua gure Estilo Liburuan jasoa dago. Kapuscinskik dio informazioa ulertzeko gertakizunen testuingurua eskaini behar dela, hau da, informazio analitikoa egin behar dela. Bera gerrate askotan ibilitako kazetaria izan zen, eta konfliktoez mintzo garenean kazetariok definizio eta hitzak zorrotz erabili behar ditugu. Honela dio berak, Kapuscinskik: "Gerrak beti hasten dira lehen tiroa entzun baino askoz lehenago, hedabidetako hitz-trukearekin hasten dira".

Gure garai hau oso konplexua da, gizartea aro berri batera doa, trantsizio gune batean gaude. Ezagututako aro batetik ezezaguna zaigun beste batera goaz, konfusio maila handiarekin. Horregatik kalitate handiko kazetaritza behar beharrezkoa da gertakizunak eta errealitatea ezagutu eta interpretatzeko.

Eskerrik asko.





BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko, Iturbe andrea. Bigarren txanda zabalduko dugu orain, eta berriro ere Urruzuno jaunak dauka hitza.

URRUZUNO URRESTI jaunak: Bai, hirugarren txanda honetan ez neukan parte-hartzeko asmorik, baina atera direnez kontu batzuk alderdiei eta eskaintzen zaien tarteen inguruan. Horiek bai ez direla interpretazioak, horiek datu objektiboak dira eta hor daude. Eta hala ere guk ez diogu horri aparteko garrantzirik ematen, guretzat inportanteena ez da denbora gehiago edo denbora gutxiago, baizik eta ateratzen den horretan behar bezalako trataera ematea. Alegia, nolakotasuna inportanteagoa da, eta guk gaur hona eztabaida hori ekarri nahi genuen, nolakotasuna inportanteagoa da kantitatea baino.

Baina EAJko pertsona batek, sailburu izandako batek, orain dela gutxi, ze hau EAJko batek esan zuen, hau ez zuen esan EH Bilduko batek. EAJko sailburu batek orain dela gutxi publikoki esan zuen EITBko albistegiek lau atal dituztela, lau: politika, kirola, eguraldia eta Arantza Tapia. Hori EAJko sailburu izandako batek esan zuen, eta orain hemen hasten gara...

(12. zintaren amaiera)

(13. zintaren hasiera)

...eta Arantza Tapia. Hori EAJko sailburu izandako batek esan zuen, eta orain hemen hasten gara esanez ea alderdi bati minutu bat gehiago, minutu bat gutxiago, eta guk eztabaida horretan ez gara sartuko. Guk beste ariketa bat egina daukagu, eta beharbada zuzendaritzak ere izango du egina, ez? Eta da 8. legegaldian Andoni Ortuzar zen EITBko zuzendaria; 9.ean, Alberto Surio; 10.ean, Maite Iturbe eta 11.ean, Maite Iturbe. Guk neurtu ditugu legealdi bakoitzeko EITBko informatiboetan Gobernuari ematen zaion tartekak. Eta Ortuzarretik eta Suriotik alderatuz, Maite Iturberen legegaldian izugarritzko gorakada du Gobernuak EITBko albistegietan ezartzen zaion informatiboetan. Guretzat hori bada kontuan edukitzeko datu bat.

Eta Kapuscinski aipatu denez, Kapuscinskiren *Estrellas Negras* liburuan, aipu bat egiten da, afrikar esaera zahar baten inguruan, eta esaten du: "lehoiek historialari bat kontratatzen ez duten bitartean, ehizako historia ehiztariek idazten jarraituko dutela". Guk uste dugu momentu honetan EITBk





herri honen historia idazten ez badu, EITBk berak propio herri honetan historia kontatzen ez baldin badu, alderdiek egingo dutela historia partzial eta interesatu bat.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko. Llanos andrea?

LLANOS GÓMEZ andreak: Sí, gracias, señora presidenta. Muy brevemente, gracias a la señora Iturbe por sus, no sé si explicaciones, porque yo creo que más que una comparecencia la señora Iturbe cuando viene a esta comisión lo que nos hace es una conferencia en dos tandas. Utiliza la primera tanda y luego en la segunda, lo que hace es completar lo que no ha podido decir o no le ha dado tiempo con el tiempo ofrecido en la primera. Porque realmente no contesta a los planteamientos que se le hacen desde el resto de los grupos, sino que, como digo, volver a completar lo que pretendía decir en el primer turno.

Señalaba la señora Iturbe que todos estamos de acuerdo en que la televisión pública y concretamente los informativos públicos deberían ser objetivos. No, no, si en eso estamos todos de acuerdo. En lo que no creo que estemos todos de acuerdo es si realmente en EITB los informativos son neutrales, profesionales, imparciales... Porque nos ha leído, efectivamente, lo que está tanto en la ley de creación del ente como en el plan estratégico.

Cosa bien distinta es que eso sea lo que realmente se cumpla en EITB. Yo solamente voy a poner un ejemplo, lo he puesto en alguna otra ocasión, porque vamos, hay muchos más, pero hay uno significativo de un aspecto que ha determinado, y es que los periodistas deben informar con neutralidad, no implicándose en el hecho noticiable en ese momento. Bueno, pues yo no tengo para olvidar una periodista que cuando estaba dando en directo una rueda de prensa de miembros del Partido Nacionalista Vasco y Bildu sobre el Gure Esku Dago le faltó pegar brincos. O sea, porque el relato que estaba haciendo era un relato en el que realmente implicación había mucha, y bastante. Eso desde luego tiene poco que ver con la neutralidad.

Nada más, muchas gracias.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko. Romero andrea?





ROMERO POZO andreak: Gracias, señora presidenta. Si me ha recogido la preocupación que tenemos los grupos, y yo creo que tiene que recogerla y hacerla también suya. Porque, insisto, no es un debate que se haya producido una vez, hay dudas respecto a la falta de imparcialidad de los informativos de la Radio Televisión Pública Vasca. Se ha manifestado en varias ocasiones, y la mayoría de los partidos lo han dicho, incluso no les gusta cómo informa EITB en el plano de objetividad y falta de imparcialidad. Se ha denunciado así. Otra cosa es cada cual cómo lo establezca o cómo quiera contribuir a acabar con esa imagen y ese debate que permanentemente estamos teniendo en esta cámara.

Porque sí es cierto que se habla mucho de minutaje, que eso está previsto para las campañas electorales pero hace dos o tres legislaturas pues también se da esto de los minutos. Es que, finalmente el hecho de los minutos no refleja siempre bien si todos los partidos o todas las fuerzas políticas dan su posición con respecto a hechos concretos que tienen espacio, tienen actualidad y tienen debate en la sociedad vasca. Claro que ninguno de los que hablamos somos periodistas, por eso estamos aquí en el Parlamento Vasco y hablamos con posiciones políticas sobre un hecho, que es que entendemos que la pluralidad está cuestionada. Y eso nos preocupa.

Yo desde luego en ningún caso he hablado nunca como periodista, sino como la posición política que mi partido tiene al respecto. Igual que también, a diferencia de otras propuestas, nosotros hace poco en un debate concreto, impulsamos o creemos que uno de los factores fundamentales es impulsar la carrera de los profesionales de informativos del grupo y priorizar la designación de los responsables desde criterios de profesionalidad que garanticen esa independencia y esa pluralidad. Que eso es compartido por la mayoría de fuerzas políticas presentes aquí, lo que no es compartido es otro sistema que está en medio de todo este desarrollo de la carrera profesional que es todo este sistema de gestores.

Por lo tanto, yo creo que la preocupación es común, pero no solo de los grupos políticos, sino también tendría que serlo de la dirección como espero que sea del ente. Es una de las cuestiones también que tenemos...

(13. zintaren amaiera)

(14. zintaren hasiera)





... no sólo de los grupos políticos, sino también tendría que serlo de la dirección, como espero que sea del ente. Y es una de las cuestiones también que tenemos y estamos abordando.

Yo no hablo tanto, vuelvo a insistir en esta segunda intervención, de línea editorial. Ni en este momento de la sociedad vasca ni en otro. Nosotros creemos de verdad que hay que buscarse esa pluralidad. Pero no pluralidad para que yo me sienta reflejado, sino para que la sociedad vasca cuando la vea se sienta reflejada. Si los datos de la audiencia también es una manera de medir eso, que no lo sé, yo creo que no, es solamente eso, pues parece que no es así.

Vamos a trabajar por eso ocupándonos todos, no tanto de cómo nos vemos reflejados, sino de si esa pluralidad también está toda la sociedad y eso aumenta a que sea una televisión pública que sí responde a ese objetivo de formar, informar a la sociedad vasca del presente y del futuro conforme a esos valores compartidos que más de una vez hemos manifestado todos y todas en esta comisión.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko. Arana anderea.

ARANA VARAS andreak: Bai. Mire, señora Iturbe, es que no sé ni por dónde empezar. Vamos a dejar de hacer afirmaciones propagandísticas y faltas del mínimo rigor.

Como ha dicho bien la señora Llanos, viene a aquí y cuenta lo que tiene escrito. Si no le da tiempo la primera parte, aprovecha la segunda. Y ahora en la tercera, pues seguirá hablando de lo que le ha quedado en el papel. Evitemos, también, a hacer las loas de su modelo de ETB y centrémonos en lo que dice la ley del contrato-programa. Y no se olvide que usted es una servidora pública, no una directiva de una cadena privada.

Como he comentado en nuestra primera intervención, me referiré a continuación a los datos que hemos obtenido a partir de la información que proporciona EITB de minutajes en los informativos de EITB, haciendo mención especial a los de ETB. Pensamos que antes de hablar de lo cualitativo, es imprescindible hablar de lo cuantitativo. No hay respeto posible a la





pluralidad política de este país si los informativos no reflejan adecuadamente la misma. Y los de EITB, le avanzo, no lo hacen. Y no lo hacen de una manera muy preocupante, silenciando a una fuerza política que es parte de este país. Aunque igual me dicen luego que eso también debo de debatirlo en la ponencia, ¿no?, que es el espacio que sirve para bloquear cualquier propuesta e iniciativa que se considere de urgencia para mejorar cosas que se están haciendo muy mal en EITB. Muy mal.

Mire, les pongo a continuación las principales conclusiones de este estudio 2017-2018. Y mire, yo no voy a hablar de sentimientos, de apreciaciones subjetivas. Voy a hablarle, señora Iturbe, de datos objetivos, porque los datos si son algo, son objetivos. Por cierto, datos proporcionados, como ya le he dicho, por EITB. Así que, vamos a hablar de la pluralidad esa de la que usted hace tanta gala.

Por un lado, entrevista a líderes políticos ordenadas de mayor a menor: Bildu 25, PNV 16, PSE 16, Podemos 13, PP 7. Por otra, los minutos de los informativos de ETB. También se los he ordenado yo, porque ya que ustedes no hacen esa labor, de mayor a menor: Bildu 316... puede apuntar si quiere, ¿eh?, lo hago más despacio si hace falta...

(Berbotsa)

PNV 282, PSE 215, PP 205, Podemos, Elkarrekin Podemos y Unidos Podemos, porque no nos lo desglosan ustedes, 180. A la vista de estos datos, le voy a hacer una pregunta: ¿Le parece a usted que los informativos de ETB reflejan la pluralidad política de este país, señora Iturbe? Con los datos en la mano, ¿me puede contestar a esta pregunta?

Qué combinación más curiosa, oiga. Es que... El partido político que ganó las últimas elecciones generales y fue tercero en las autonómicas resulta que es la quinta en sus espacios informativos. ¿Nos podría explicar a qué se deben estas variantes de datos y posiciones? ¿Es fruto del azar a lo largo de un año? ¿No decía que las noticias se elaboran con criterios informativos? Y el criterio de pluralidad, ¿dónde queda tras leer estos datos, señora Iturbe? ¿Se los guardan en la guantera del coche por si algún día se le ocurre sacarlos o cómo va esto?

Mire, le avanzo, que estos datos se repiten también en lo que se refiere a las radios. O sea, que no es algo sólo de ETB. En el conjunto de EITB,



Podemos, Elkarrekin Podemos y Unidos Podemos es la fuerza política a la que se le dedica menos tiempo. Curiosa forma, le repito, de reflejar el pluralismo político. Curiosa forma, señora Iturbe. Curiosa forma.

Un dato que llama la atención es que el PNV, aparentemente, tiene menos presencia de la que le correspondería. Y digo aparentemente porque ya sabemos que esto no es cierto, puesto que ya le he mencionado antes las 60 horas de información institucional. 60 horas. Si tuviera a bien, le agradecería que enviaran esta información desglosada en aras de la transparencia a la que usted también hace tanta gala.

Concluyo ya. Mire, señora Iturbe. Estos datos son una muestra de que usted miente. Miente. Miente cuando afirma que los informativos de ETB cumplen con los principios que estipula la ley. Miente cuando dice que refleja la pluralidad. Es decir, miente. Es una evidencia y usted sabrá si quiere explicarnos a qué se debe. En caso de hacerlo, le rogaría una vez más que no nos tome el pelo. Eskerrik asko.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko. Eta bukatzeko, Euzko Abertzaleak taldearen izenean, Oregi andereak dauka hitza.

OREGI BASTARRIKA andreak: Bai. Egun on, berriro ere.

Hemen gaude ordezkaturata lau talde politikoak. Eta argi dago bakoitzak ikusten dituela informatiboak bere betaurrekoekin. Hori argi dago: EH Bildu minduta agertzen da, PPK minduta agertzen da, Podemos ere minduta agertzen da. Datuak zuzendaritzak berak bidaltzen digu ganbara honetara. Horrela eskatu zen aspaldi eta beti etortzen dira datu horiek. Eta hor daude...

(14. zintaren amaiera)

(15. zintaren hasiera)

...zuzendaritzak berak bidaltzen digu ganbara honetara, horrela eskatu zen aspaldi eta beti etortzen dira datu horiek eta hor daude.

Baina baita gure eztabaidetan askotan agerian gelditzen da minutuak ez dira inportanteenak, gaur antza denez bai. Gaur minutuak inportanteenak dira. Baina gauden gizarte zabal, anitz, plural honetan, nik uste dut ez dela





batere arraroa hainbeste ikuspuntu, hainbeste ikuspegi edukitzea gure artean, jakinda ze diferentziak dauden gure artean. Ez bakarrik alderdi politikoak ordezkatzeko dugun heinean, baizik eta gu, pertsonalki garen bakoitzak garenok, ez? Batzuk gara emakumeok, beste batzuk gizonok, beste batzuk ez dakit zertan lizentziadunak, beste batzuk enpresariak, beste batzuk... denetarik daukagu, beraz bakoitzak bere betaurrekoekin ikusten du.

Beraz, zuk uste dut hori apur bat aipatu nahi izan duzu ere: hemen dago estruktura bat osatuta, hemen dauden gauzak, nola egiten diren gauzak... Ganbara honek zeresan handia dauka zelan dauden antolatuta gauzak, eta hori hor dago, eredu badago, eta hortik aurrera egin behar dira egunero egunero informatiboak eta eskaletak. Hor, batzuetan, agian gauzak ez hain ondo egiten, eta zu zeu hasi zara esaten barkamena eskatu zenutela, edo azalpenak eskatu zenutela gertakari konkretu baten inguruan. Baina ezin gara, erdaraz esaten den bezala "los árboles no nos dejan ver el bosque". Nik uste dut horretan gaudela.

Hemen aipatu da ere Ortuzarren garaia, Surioren garaia eta Iturberen garaia, nik esango nuke orain arte egon da ildo konduktore bat eta izan da aurreko gestoreak horrek bai izan zirela politikoak, eta orain kudeaketan daukagu profesional batzuk. Nik uste dut hori ere kontuan hartu beharko genuela eta laga beharko genizuela, kasu horretan, lan egiten guk bitartean egiten dugun gure lanak eta eredu-lan horiek aurrera eramaten ditugun bitartean.

Eskerrik asko.

BATZORDEBURUAK: Eta bukatzeko, Iturbe andrea, nahi baduzu agerraldia itxi.

EITBKO ZUZENDARI NAGUSIA (Iturbe Mendialdua): Beno, jasotzen ditut preokupazio guztiak, eta datuen kontraste guztiak, hemen aipatutako legealdi guztietako kontraste eta datu horiek. Baina beno, gustatuko litzaidake baita ere esatea legealdi guzti horien ondoren legealdi bakarra dela bost urteetan jarraian lidergoa daukaguna informatiboetan.

Hori esanda eta Eukene andrea, ba hainbat datu eman ditu eta datu horiek guk emandakoak dira, ez ditugu ezkututzen, eta hori ere guk ematen





ditugu. Beste telebistetan ez dira ematen, beste telebista-irradi publikoetan ez dira ematen horrela. Horrek ez du ezer esan nahi baina bada gauza berezi bat guk egiten duguna, ezta? Eta nolabait transparentzia badago horretan, nahiz eta gero esan gezurtiak garelara eta guzti hori. Baina hemen daude datuak, efektibamente.

Datu horietan batzuetan kuantitatiboa da garrantzitsua, beste batzuetan kualitatiboa. Nik uste dut biak direla inportanteak, kuantitatiboa eta kualitatiboa. Kualitatiboa oso inportantea da ere, ados nago, baina inportantea da noski kriterio profesionala errespetatzea, hori da hain zuzen ere hemen defendatzen duguna. Kriterio profesionala praktikatzen dugunean aztertzen dugu kontestua, aztertzen dugu "hecho noticioso"-a zenbaterainoko interesa duen gizartean, eta aztertzen dugu eguneko eskaletaren karga, eta aztertzen dugu ze kontraste maila duen albistea, nolabait modu egokian eman ahal izateko, modu neutralean.

Datura noa. Datuak aztertzeko beti aztertu behar dira tendentzia bat ikusirik, eta ez datu konkretuetara eta hile konkretu batzuetara mugatuz. Orduan, guk 2017ko datuak ikusirik, urte osoa aztertuz, eta datuak hemen daude, esan dezakegu bai Elkarrekin Podemos, eta bai PSOEko datuak daudela parekatuta beren botoen proportzioan. Bariabilidade batekin, noski, Gu ez gaude hemen Excel batekin lan egiten, notizia politikoak eta partiduetako notiziak kontatzerakoan, eta egiterakoan, ze azkenean aktualidadeak agintzen du eta gizarteari begira lan egin behar dugu, ez alderdi politikoei begira.

Hori esanda, eta datuei begira, guk hemen ditugu datuak, eta baremo normal bat emanez, 7 % arriba 7 % abajo, Elkarrekin Podemos eta PSE, hemen daukagu berdean datuak. Horrek esan nahi du parekatuta daudela euren botoen proportzioan. Egia da Elkarrekin Podemos ekainean gorri agertzen dela, azpitik, abuztuan goitik, urrian azpitik eta abenduan goitik, primariak izan zirelako. Baina akumulatua, urte osoko akumulatua, berriro diot datuak begiratu behar direla, tendentzian berdean dago. Berdean dago % 2,18 goitik, telebistan. Telebistan, 2017koaz ari naiz, ez 2018az.

Radio Euskadi, Elkarrekin Podemos bukaeran, 0,86 % por encima. Eta Euskadi Irratian, akumulatua 2017an % 3,09 azpitik, kasu honetan. Baina % 3a iruditzen zaigu dela baremo normal horren batean.

2018ra bagoaz, urtarrilean eta otsailean azpitik doa baina berriro...





(15. zintaren amaiera)

(16. zintaren hasiera)

... 2018ra bagoaz, urtarrilean eta otsailean azpitik doa. Baina, berriro diot, % 7ren azpitik. Alegia, guk oraindik berdez daukagu, baina azpitik doa.


Galdetu dut, noski, ea zer gertatzen den. Eta esaten didate Elkarrekin Podemosekin beno, ba egon da... Beno, iaztik hona aipatu zuten prentsaurrekoak egingo zituztela edo deituko zituztela prentsaurrekoetara, hemen, Parlamentuan bertan. Eta urtarrila eta otsailean ez dituzte deitu. Oraintxe, martxoan uste dut hasi direla prentsaurrekoak deitzera. Horrek ere zer esan nahi du? Ba azkenean, ez badaude prentsaurreko horiek, ba noski, ez dagoela notizia emateko aipurik. O sea...

Bestetik, badakigu partidua bera ez dela beste batzuk diren hain aktiboak momentuz, behintzat, asteburuetan edo dena delakoetan antolatzen dituzten ekitaldietan. Ez dira, momentuz, hain aktiboak. Eta Madrilgo informazioak direnean, Estatu mailako informazioak ematen direnean, normalean mikrofonoak jartzen dira Madrileko interlokutoreetan edo politikoetan.

Dena den, berriro diot, datuak hemen daude, urtarrilean eta otsailean. Eta urtarrilean doaz azpitik % 3,95. Eta otsailean, un 4,46 % por debajo de su porcentaje de voto. Orduan, ez da alarmatzekoa. Badakigu kexa hori dagoela. Eta uste dut, gainera, Elkarrekin Podemos jada hasia dela prentsaurrekoak egiten Parlamentuan bertan. Beraz, ikusiko dugu zelan aldatzen diren datuak.

Orduan, besterik, ba eskerrik asko, jaun-andreok. Beti bezala, agerraldian zehar ideia eta pentsamendu asko agertu ditugu. EITBren kontrol saio honetan hedabide publikoarekiko debatea izan dugu. Debate eta kontrol honek, ondorioak aparte, balio handia du bere horretan. Nork kontrolatzen ditu hedabide pribatuak? Nork agertarazten ditu hedabide pribatuetan dauden interesak? Kontrol saio hauek garrantzak edo leunak izan daitezke. Beti ere kontrol saioak dira eta zuzendaritza nagusiak bere gain hartzen du gizartearen ordezkariari hedabide publikoaz kontu ematea. Beharrezkoa da kontrol premia hau.

Bukatzeko, hemen gure ikuspegia. Hedabide publiko indartsua, EITB indartsua, behar du Euskal Herriak. Kontrapesu izateko hedabide





pribatuekiko. Eta kontrapesu izateko hedabide guztiak boterearekiko. Horrela izanik, gizarte informatua eta iritzi kritikoduna ahalbidetuko dugu. Horretan datza, azken finean, gure xedearen egiteko nagusia informazio arloan. Eskerrik asko.

BATZORDEBURUAK: Eskerrik asko, Iturbe anderea. Eskariak eta galderak egongo dira? Ez, ez, batzordean. Bestela, gure gonbidatuak agurtuko ditugu eta jada horrela batzordea bukatutzat izango genuke, bai?

Eskerrik asko, denoi.

Eta eskerrik asko, zuei, beste behin ere gure batzordean egotea.

Arratsaldeko hirurak eta hemezortzian amaitu da bilkura.

ZIRRIBORROA

